

**EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN BILERA
REUNIÓN DEL CONSEJO ASESOR DEL EUSKERA**

2016-05-11 Lehendakaritza 11-05-2016

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Arratsalde on eta ongi etorri Lehendakaritzara.

“Bide luze eta malkartsua” izendatu zuen Mitxelenak euskararen bidea.

Bide luze horretako malkarrak leuntzea posible da, baldin eta denok jartzen badugu bakoitzak bere alea.

Elkarlanaren aldekoa naiz, edozein arlotan, baita ere, nola ez, hizkuntza politikan. Horretan ahalegintzen da gure Gobernuak: herri erakundeen arteko elkarlanean, eta herri-erakundeen eta gizarte-eragileen arteko elkarlanean.

Bakoitza bere egitekoetan fin, norberaren erantzukizunei bizkarra erakutsi gabe, baina elkarrekin, lankidetzara eraginkorrean.

Lankidetzara horren isla nabarmena da Euskararen Aholku Batzardea.

Parte hartze sozialerako sortua da eta gizarte zabalaren plaza irekia da. Apaltasunez baina harrotasunez esan dezakegu, hitzetan eta ekintzetan demostratu duenez, euskalgintzaren lankidetzarako gunea dela hau.

Bide luzea egin dugu elkarrekin euskararen mesedean, euskal gizartearen elkarbizitzaren mesedean. Har itzazue guztiok nire aitormena, esker ona eta elkarren arteko lankidetzara jarraitzeko animoa eta eskaintza.

Mugarri ugari jarri ditugu bide horretan.

Horien artean dugu, adibidez, ESEPen diagnostikoa sakontzeko AMIA dokumentua. Dokumentu hark euskararen egoeraren argazki fin bat eskaini zigun.

Aipatzekoa da, baita ere, Euskararen Adierazle Sistema, Batzarde honek balioetsia. Hizkuntza plangintzarako tresna baliotsua. Azpimarratzekoa da euskararen lurraldetasunari egiten dion ekarpena. Izan ere, euskararen lurraldeetako herri agintek adostasunean eraikitako tresna da. Bat eginik ateratzen ari gara proiektu hori aurrera Eusko Jaurlaritza, Iparraldeko

Euskararen Erakunde Publikoa, Nafarroako Gobernuaren Euskarabidea Institutua eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru aldundiak.

Euskara 21 Batzorde-atalaren eskutik, euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoen lanketa egitasmoa bultzatu dugu. Helburu argia jarri genion: “euskararen gaineko oinarritzko diskurtsoak aztertu, kontrastatu, berritu eta bateratze bidean jartzea.” Helburu horren muinean dago, adostasun sozial eta politiko zabal baten premia onartzea eta mamitzea.

Iraganean egin dugun ibilbideak ongi asko erakusten digunez, euskara biziberritzeko ahaleginean herritarren atxikimendua da faktorerik ezinbestekoena. Hori sendotu ezean, alferrik arituko ginateke sustapenean edo araugintzan.

Zorionez, gure herriak argi asko erakusten du elebiduna izan nahi duela; era progresiboan, elkarren arteko errespetu osoz, “nahi eta ahal” dugun erritmoan, baina etengabe.

Gure aurrekoek esaten zutenez, “atzeak erakusten du aurrea nola dantzatu”.

Atzera begiratzea nahikoa da ohartzeko euskal gizarteak egin duen ahalegina. Etorkizunari begira, euskararen aldeko deman, lehen-lehenik ziurtatu behar duguna, lortutakoa bermatzea da.

Horren haritik Batzorde honek bideratu du ekarpen bat: **“Eta hemendik aurrera zer?”** dokumentua, hurrengo 20 urteetarako oinarriak eta lehentasun markoa finkatzera dator.

Dokumentu sendoa da eta adostasun zabalean bilatu du makulua. Gehiagotan ere esana dut: *“Euskarak gizartearen mobilizazio berri bat behar du. Inor kanpoan, atzean, alboan edo bazterrean utziko ez duen mobilizazioa. Zein da mobilizazio horren mamia? **Euskara gero eta gehiago erabiltzea.**”*

“Eta hemendik aurrera zer?” dokumentuan baditugu bide hori egiten laguntzeko eta elkarlanerako zutoinak.

Gaurko batzar honetan beste ekimen garrantzitsu batzuk ere borobilduko ditugu.

Hain zuen ere, “euskara gero eta gehiago erabiltzeko” bide horretan ildoak markatu eta argi egingo diguten bi dokumentu.

Biak, behin eta berriz azpimarratzen den lehentasunezko arloetakoak: bata, gazteriari buruzkoa, eta bestea Informazio eta Komunikazio Teknologiai buruzkoa. Bi dokumentu hauek Gazteriaren eta IKTen batzorde-ataletan ondu dira.

Bestetik, Toponimia Batzordeak ere bere programa bete du, eta dagoeneko onarpenerako tramitean abiatzear da Erkidegoko Izen Geografiko Ofizialen Erregistroa sortzeko dekretua.

Terminologia Batzordeak, berriz, 18 hiztegi terminologiko aztertu eta onartu ditu legealdi honetan, eta beste bi onartzear daude. Guztiak daude EUSKALTERM Banku Terminologiko Publikoan integratuak, edozeinek kontsulta ditzan.

Eskerrak ematea dagokit.

Oso gutxitan gertatzen dena gertatu da: Euskararen Aholku Batzordeak oso-oso bete du 2013an lau urterako finkatu zuen lan programa.

Hobeto esanda, betetzetik harantzago joan gara: “Eta hemendik aurrera zer?” aurreikusi gabeko lan zaila zen, baina, denon artean, adostasun zabalean, hori ere egin dugu.

“Luzea eta malkartsua” denez euskararen bidea, eta bidea egiten jarraitzeko konpromisoa dugunez, datozen 20 urteei begira jartzen gaitu dokumentu horrek.

Gure gaurko lanari hasiera ematearekin batera, biziki eskertu nahi dizkizuet zuen guztion lana eta eskuzabaltasuna.

Orain arte egin duzuen, eta hemendik aurrera egingo duzuenak ere, gu guztion esker ona merezi du. Uzta ederra uzten ari zarete, uzten ari gara, euskararen aurrerabidean.

Mila esker, beraz.